

ONGI ETORRI! *Eurocamping*

Eurocampingera datorren pertsona orok bete behar du bizikidetza bermatzeko ondutako araudi hau.

IRISTEAN

Bezeroak bere nortasuna egiaztatu beharko du, baita berekin datozenena ere, NANak edo bestelako nortasun-agiri ofizialak aurkeztuz. Horrez gain, ordaintzeke dauden kontzeptu guztiak erregistratuko ditu. Jatorrizko erreserbarekiko edozein aldaketa badago, horren berri eman beharko da berehala harrera-tokian. Erreserbaren titularrak bere lagun eta bisiten ardura izango du, baita berei arduragabe jokatzearen ondorioen berri ematearena ere.

Kanpinean, adingabekoak ezin dira bakarrik egon. Adin nagusiko norbaitek lagunduko die, haien arduradun izango den norbaitek.

Talde-erreserbak aldeztatik onartu eta baimendu behar dira.

Bezero guztiei eskumuturreko identifikagarri bat emango zaie; eskuturrean jarrita izan beharko dute, egonaldi osoan.

Gure zaindarien zuen partzela edo ostatura lagunduko dizuete eta jarraibide batzuk emango dizkizute, zuen egonaldia are atseginagoa izan dadin.

Partzelen kasuan, markatutako posizioa eta mugak errespetatu beharko dira beti; ezingo da aldaketarik egin, harrera-lekuaren aurretiko baimenik gabe. Ezin da ez hesirik, ez errafiazko eguzki-oihalik, ez zoru ez-porotsurik jarri, ezta baimenik gabeko ezein elementu ere. Gainera, debekatuta dago zuhaitzetan hamakak edo bestelako sokak lotzea.

Partzelan, ezin da karabana edo denda muntatuta utzi, barruan inor ez badago, non eta zuzendaritzaren baimen espresurik ez dagoen.

Debekatuta dago dendak ostatu artean edo beren partzeletan jartzea. Ezin dira toallak edota arropa ostatuaren estrukturatik zintzilikatu.

JOATEAN

Gogora ezazue: partzelak **12ak baino lehen** hustu behar dira, eta ostatuak **11k baino lehen**. Baimendutako ordua baino beranduago irteten bada, bezeroak **beste egun bat ordaindu beharko du**. Har ezazue kontuan horrek inolaz ere ez duela partzelan edo ostatuan egoteko baimenik ematen, ez egun horretan, ez hurrengoan.

Ostatuak **garbi eta txukun** utzi beharko dira, iritsieran zeuden bezala. Bestela, 40 € kobratuko dira, garbiketa kontzeptupean.

Ostatuaren giltza barrerako buzoian utzi behar da. Harrera-ordutegitik kanpo irteteko, alde zurretik eman beharko da horren berri.

BIZIKIDETZA KANPINEAN

Isiltasun-orduak gauerditik 8ak arte dira. Ordu horietan, **debekatuta dago motor-ibilgailuetan ibiltzea**. Salbuespena langileak eta 7etatik aurrera kanpinetik irteteko baimena duten bezeroak dira. Kanpinera gauerdia pasata iritsiz gero, autoa esparrutik kanpo dauden aparkalekuetan utzi beharko da.

Kanpingaren esparruan, **debekatuta dago patinete elektriko eta antzekoetan ibiltzea goi-denboraldian**. Salbuespena pertsonal baimendua eta mugikortasun urriko bezeroak dira. Behe-eta erdi-denboraldian, patinete elektrikoen eta antzekoen debekua 16 urtetik beherakoentzat baino ez da. Patinete gainean gidaria baino ez da ibiliko.

Halaber, eta istripuak ekiditeko, **22ak eta 7ak artean ezin da bizikletaz ibili**. Pertsonalak badu baimena.

Kanping barruan, motor-ibilgailuak ahalik eta gutxien erabiltzeko gomendatzen da, eta abiadura maximoa **10 km/h izateko**.

Kanpineko pertsonalaren ibilgailuak eta lanerako ekipoa errespetatu behar dira. Aintzat hartu langileen argibideak.

Mundu guztiaren egonaldia atsegina izan dadin, eta inguru naturala errespetatzeko, eskaera bat dugu: ordu horietatik kanpo ere, eutsi isiltasun minimo bati. Erreparatu irrati- eta telebista-aparatuen eta beste aparatu elektronikoen bolumenari, une oro baxua izan dadin, beste erabiltzaileei enbarazurik ez egiteko. Era berean, **aire girotuak** ezingo dira edozein norabidetan ipini eta **ezingo dira beste partzela batzuei begira jarri**; hortaz, **kalera orientatu beharko dira**.

Kanpineko instalazioak nahita zikinduz edo hautsiz gero, berei edota pertsonalari begirunea galduz gero, falta larria izango da, norbait egozteko arrazoi nahikoa, kanpineko zuzendaritzak hala erabakitzen badu.

Halaber, pertsonalak zuzendaritzaren baimena du igerilekuetako etzaulkietako toallak edo luzeegi egondako edozein objektu kentzeko, lekua gordetzeko utzitakoak.

MASKOTAK

Txakur baten edo beste edozein animalia jabe orok Kataluniako Generalitatak edo dagokion erakundeak hitzarturiko Arautegi Ofiziala bete behar du.

Animaliak bai pertsoneri, bai ondasun materialei egindako edozein kalteren arduraduna jabea izango da.

Txakur guztiek izan behar dute txerto-txartel eguneratu bat; iristean, harrera-lekuan erakutsi beharko da.

Partzelan, ezin da animalia bakarrik edota deslai utzi.

Animaliak ez dira debekaturiko gunetan onartzen.

Maskotek eginkariak horretarako egokitutako inguruetan egin behar dituzte **(PipiCan-etan)**.

BISITAK

Goi-denboraldian, ez da bisitarik onartzen, kanpinaren edukiera dela eta.

Kanpinean ostatu hartu duten bezeroei baino ezin zaie bisitarik egin. **Egonaldi nagusiaren zati ez den pertsona oro izango da bisita.**

Bisitak iristen direnean, titularrak hartuko ditu, harrera-tokian, eta behar bezala izena eman dutela egiaztatuko du. Horretarako, nork bere nortasun-agiriak aurkeztuko ditu, baita izena ematean indarrean den tarifa ordaindu ere.

Bisitak **hurrengo eguneko 18ak arte egon ahalko dira instalazioetan, baldin eta partzela edo ostatuko edukiera maximoa ez bada gainditzen.**

Etxe-animalia dakarten bisitak kanpinean sartu ahalko dira, animalientzat egokituriko inguruak errespetatuz.

Oroigarri bat: gure bezeroak beren bisiten jokabidearen arduradunak dira.

Gure bezeroen lasaitasuna bermatzeko, iruzkindu nahiko genuke Confort Plus txaleta, Beste Village, Premium villa eta Luxe villa ostatuen instalazioak han ostatu hartutako bezeroek erabiltzekoak baino ez direla. Beraz, ezin ditu kanpinean ostatu hartu duen beste inork erabili, ezta edukiera maximoa gainditu duten bisitek ere.

SEGURTASUNA KANPINEAN

Zure eta kanpineko bezeroen segurtasuna bermatzeko, datozen gomendioak aintzat hartzeko eta betetzeko eskatzen dizuegu.

Ezin da ez su-egurrik, ez bestelako konbustiorik erabili sua pizteko, **gasa** edo **ikatz**a kenduta. Beti erabili beharko da **barbakoa** bat, eta segurtasun-neurriak guztiz zorroztuko dira:

- Barbakoa piztu aurretik, ziurtatu ez dagoela **kanpineko *apean* iragarritako aldi baterako debekurik** (25 km/h-ko haizea edo hezetasun txikiko eguna).
- **Ez urrundu barbakoatik**, piztuta dagoen artean.
- Ondoan, urez betetako ontzi bat eduki behar da, larrialdirik baldin badago erabiltzekoa.
- Ez piztu barbakoarik ostatutik hurbil.
- Amaitzean, ziurtatu barbakoa **erabat itzalita** dagoela eta, errautsak **hotz** daudenean, bota **dagokien kontainererra**; gaikako bilketako puntuetan aurkituko dituzu.

Erabiltzaile orok eduki beharko du suteen kontrako su-itxalgailu

indibidual bat. Ez utzi piztutako aparatu elektrikorik zaindu gabe.

Eduki ezazu hezetasunaren aurkako kable-mahuka bat, baita larako-entxufea ere,

lurrerako hargunearekin. Men egin igerilekuetan dauden araei eta sorosleen

aholkuei.

PUNTU GARRANTZITSUAK

Berdeguneak errespetatu.

Hondakinak poltsa itxietan sailkatu eta dagokien gaikako bilketako kontainerretara bota.

Ura eta energia elektrikoa zentzuz baliatu; behar-beharrezkoa dena baino ez erabili.

Iturriak ur-horniketarako baizik ez erabili.

Co2-aren isuria murrizteko, erabili autoa ahalik eta gutxien. Ingurutik mugitzeko, garraio publikoa eta bizikleta gomendatzen dugu.

Autoen garbiketarako gunea horretarako baino ez erabili; ez garbitu autoa beste guneeetan.

ARDURAK

Kanpina etengabe zainduta badago ere, zuzendaritza ez da arduraduna izango erabiltzaileen ondasunak lapurtzen badituzte.

Beste bezero batzuek kalteak eragiten badituzte, edozein kausaren ondorioz (egintza bandalikoak, kanpinlariak berek sortutako suteak, gertakari atmosferikoak, hondamendi naturalak edo establezimenduarekin zerikusirik ez duen beste edozer kausa), zuzendaritza ez da arduraduna izango. Erabiltzaile orok behar du hirugarrenentzako erantzukizun zibileko aseguru bat.

Araudi honetako punturen bat betetzen ez duen edonori kanpina uzteko eskatuko diogu. Eurocampingaren zuzendaritzak araudi honetan azaldutakoa betetzen ez duen edonor egozteko baimena du.

Edozein kexa edo proposamen izanez gero, mesedez, hitz egin harrera-lekukoekin.

Eurocampingen, zure egonaldia esperientzia aparta izan dadin nahi dugu, eta horretarako baldintzak sortuko ditugu. Konprometituta gaude.

Lagun iezaguzu hobetzen! Bete ezazu gogobetetasun-inkesta bat gure *ap*ean.